Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

242 zenbakia
2023 **urtarrila**

Prest!

BERBETAN: **HAIZEA URIAGEREKA eta IRATI SIENRA** BILBOKO BILGUNE FEMINISTA

ERREPORTAJEA: **ETXERAKO BIDEARI EKITEKO PREST**

BARKUA: **IRAS PROIEKTU MUSIKALA**

TOKIKOM

38-239-240-241-242

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu Ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

Bihotz Alai Folklore Dantza Taldea

Arrabaun Taldea Deustu

Deustuko Ikastola

Deustuko Jai Batzordea

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

Elorri Bertso Eskola

eaj pnv deustu

S.D. Deusto

ehbildu

zirikatzen!

Deustuko Gazte Asanblada

Egunsentia Eskaut Taldea 1982tik

ernai Deustua

Pare Hautsi Gaitzak Katean

Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale



Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

242 zenbakia
2023ko urtarrila

aurkibidea

Jaione Ayestaran - Ibai Etxautz	**Iritzia**	4
Axel Ojanguren Guerra	**Gureak kanpoan**	5

e **erreportajea**
Etxerako bideari ekiteko prest

Hiru hamarkadetan zehar gauzatu den euskal presoen aurkako urruntze eta sakabanaketa politikari amaiera emanez, laster euskal preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan izatea espero du Etxeratek. Urruntzea bukatuta, orain "presoen etxerako bideari ekiteko" momentua dela adierazi du elkarteak.

6

Deustuko Ikastola	**Eskolak**	10
Herri-lurren aurkako erasoa (III)	**Behin batean**	12
Hautsak harrotu ditu Agirre Lehendakariaren etorbidean 128 zuhaitz moztu izanak	**Artikulua**	14

b **berbetan**
HAIZEA URIAGEREKA eta IRATI SIENRArekin

2022. urtean bi hamarkada bete dira esparru ugarietako emakume askok Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zutenetik. Ordutik hamaika dira aurrera eramandako borrokak eta hain zuzen ere horien gainean aritu gara bertako kide diren Haizea eta Iratirekin.

16

Metalúrgica y Ferroaleaciones Especiales, S. A. (M.E.F.E.S.A.) (2009)	**Irudiak berbetan**	21

MUSIKA IRAS izeneko proiektu musikala abiatu du Eneko Irastorza deustuarrak

IRAKURKETA Irakurketa Erreza taldea abiatuko dute berriz ere Deustun

PINTXODROMOA Bizkaia hanburgesa

KULTUR TXOTX Danel Abando Olabarri eta Salva Anakabe Solabarrieta

harkua bete herba

24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Jaione Ayestaran
Kazetaria

Urteko lehena

Urtarrila da bizimodua aldatzeko aukeratua dugun hilabetea. Gehienok beteko ez ditugun promesez kargatzen dugu asmo onen zakua. Kargatu, bai; azken batean, zama baino ez diogulako jartzen gure buruari. Kiloak galdu, ingelesa ikasi, kirola egiten hasi eta dirua aurreztu. "Baietz mugikorra gutxiago erabili aurten?". "Oraingoan bai, erretzeari utziko diot". Baina, zertarako gogortu urtarrilak berez duen malda? Azken urteek ekarri diguten zorigaiztoko pelikularen ondoren, beldurrez heldu diote askok 2023ari. Eta ez da gutxiagorako. Merketu ez den arren, bukatu egin da erregaien bonifikazioa. Gora egin dute interesek. Hipotekak itota bizi dira herritar asko, eta elikagaien prezioek ez omen dute toperik. Gerrikoa estutzeko hilabetea ere izan ohi da urtarrila. Hori sinestarazi digute. Baina denok estutzen al dugu, benetan, gerrikoa? Noski, hau ere ez da berria. Repsolen irabaziak, adibidez, % 66 igo dira azken urtean. Hori da errealitatea: batez beste, % 21,1 hazi dira enpresa handien irabaziak, gure soldatak baino zazpi aldiz gehiago. Baina, urtez urte, langileoi dagokigu kontsumo ohiturak aldatzea. Bizimodu berriaren zama gure gain jartzen dute urtarrilero. Bada, nik neuk, susmoa daukat 2023ko lehen lerro hauek ere, ez dutela ezer aldatuko. Eta sinetsita nago, dena irauli ezean, denak berdin jarraituko duela.

Ibai Etxautz
Sanikoa

Zerbait aldatu al da?

Urtebete igaro da azken Lan Erreforma esanguratsua indarrean sartu zenetik. Erreforma horren sustatzaileek promesa handiak egin zituzten eta langileen garaipen garrantzitsu gisa aurkeztu zuten lege moldaketa hura. Jomugan, bereziki, lanpostuen behin-behinekotasunarekin amaitzea zegoen, baina inozoa izan behar da gero hori hala gertatu dela pentsatzeko. Behin-behinekotasunak bere horretan jarraitzeko berebizikoak diren baldintzak ez dira aldatu. Langileak kaleratzeak merke jarraitzen du, sekulako pagotsa enpresarientzat; iruzur kontratuak eta kontratu gabeko lan babesgabeak askoren eguneroko ogia dira, gainera, ez dira jazartzen; eta probaldietan egindako kaleratzeek egundoko gorakada izan dute. Horiek guztiek langileak lanpostu bat lortu eta erraz galtzea dakarte. Lan egonkor eta eskasa izateak bizitza zaurgarrira kondenatzen ditu milaka eta milaka langile, eta ez dirudi krisialdi garai honetan proposatzen diren errezetek zerbaitetarako balio dutenik, ez bada betikoen patrikak beteta mantentzeko. Esandakoaren ostean eta urtebete pasata galdera erreza da: Zerbait aldatu al da? Bada, ez. Eta zaila da pentsatzea egungo instituzioen bidez inolako aldaketa sakonik gerta daitekeenik.

Axel Ojanguren Guerra

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Benalmadena (Malaga)
Lanbidea: tranpolin parke bateko gerentea

“Ia arrain bat bezala bizi naiz, egunero sartzen naiz uretara”

Laster bi urte beteko ditu Axel Ojangurenek Malagan bizitzen, tranpolin parke bat kudeatzen. Aurretik Kanarietan, Logroñon eta Thailandian ere egondakoa da, Ian oso ezberdinetan.

Non bizi zara? Noiztik?
Benalmadenan, Malagako kostaldean. 2021eko martxotik.

Zer egiten duzu bertan?
Tranpolin parke bateko gerentea naiz. Ohe elastikoak dituen parke batean egiten dut lan.

Nola amaitu duzu bertan?
Aurretik Logroñon bizi nintzen eta enpresa berean egiten nuen lan, komertzial gisara. Mugikortasuna eskatu nuen eta hona ekarri ninduten.

Aurretik ere kanpoan bizi izandakoa zara, orduan.
Bai, Logroñoz gain Kanariar uharteetan eta Thailandian ere bizi izan naiz lana dela-eta.

Eta zertan aritutakoa zara?
Ostalaritza ikasi nuen eta beti egon naiz sukaldari edo zerbitzari lanetan. Thailandian, adibidez, hotel bateko janari eta edari zuzendaria nintzen. Komertzial bezala ere egon naiz urte luzez lanean eta orain aisialdiko sektorera egin dut jauzi eta, egia esan, primeran nago!

Zenbat urte daramatzazu Deustutik kanpoan bizitzen?
Sei edo zazpi egingo ditut kanpoan dagoeneko. Baina, esaterako, pandemiako urtean Lekitton egon nintzen bizitzen.

Nolako hiria da Malaga?
Malaga hiri handi bat da, Bilbo baino handiagoa. Han egiten dut lan, eta denbora pasatzen dut bertan, baina, bizitzeko, herri txikiak nahiago ditut. Orain Benalmadenan bizi naiz. Askoz lasaiagoa da eta Malagatik 15 minutura dago.

Nolako bizitza duzu bertan?
Nire ustez, bizitza hobea daramat hemen. Ez du ia euririk egiten eta neguak askoz epelagoak dira. Gainera, gauzak merkeagoak dira. Elurretara joan nahi badut Sierra Nevada daukat gertu, Pirinioak Bilbotik baino askoz gertuago; eta, egun ona ateratzen bada, hondartzara joan naiteke urtarrilean, hori pentsaezina da Bilbon. Itsasoa behar dut pozez bizitzeko, eta itsasoko kirolak urte osoan zehar egin ahal izateak pozez betetzen nau. Urpeko igeriketan, urpekaritzan, esnorkelean, arrantzan, urmotorrean, igeriketan... ibiltzen naiz beti. Ia arrain bat bezala bizi naiz, egunero sartzen naiz uretara.

Bestalde, Bilboko eta Gasteizko lagunak ditut hemen eta astebururo elkartzen gara, iparraldeko planak egiteko. Peña Athletic Club ere badago hemen eta batzuetan partidak ikustera joaten gara.

Deustun zenuenarekin alderatuta oso desberdina da?
Udan ez, baina urte osoa kontuan hartuta bai. Pentsa, hemen udak apiriletik azarora arte irauten du.

Zer da bertatik gehien gustatzen zaizuna?
Tenperatura ona eta itsasoa. Hala ere, Malaga penintsulako probintzia menditsuena da. Mendira joatea ere gustatzen zait eta Euskal Herrian baino mendi gehiago dauzkat hemendik gertu.

Eta gutxien?
Euskal herritik urrun egotea, horrek dakarren guztiarekin, badakizu...

Zer duzu faltan?
Familia eta lagunak, eta Bilboko jatetxeak. Lagun asko dauzkat mundutik galduta baina Bilboko lagunak eta, batez ere, familia, faltan sumatzen ditut askotan.

Sarri bueltatzen zara Deustura?
Gabonetan bueltatzen naiz urtero, turroiaren antzera!

Urtarrilaren 7ko manifestazioko irudi bat.

ETXERAKO BIDEARI EKITEKO PREST

Hiru hamarkadetan zehar gauzatu den euskal presoen aurkako urruntze eta sakabanaketa politikari amaiera emanez, laster euskal preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan izatea espero du Etxeratek. Urruntzea bukatuta, orain "presoen etxerako bideari ekiteko" momentua dela adierazi du elkarteak.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Irudiak:** Etxerat Elkartea, Sare Herritarra

Beste urte batez euskal presoen eskubideen aldeko manifestazio jendetsu batek zeharkatu zuen urtarrilaren 7an Bilboko Autonomia kalea. Urrunketa ia ia amaituta dagoen aro berri honetan, euskal presoen eskubideak errespetatzea eta dagokien espetxe politika aplikatzea izan zen egun hartako aldarririk nagusiena.

Urruntzeak eta sakabanaketa politikaren lehen urratsak 1987. eta 1988. urteen artean eman ziren. Urtebete beranduago, 1989ko maiatzean hain zuzen, "sakabanatzearen aplikazio orokor eta sistematikoa" gertatu zen Etxeraten arabera, preso euskaldunak Balear Uharteetara, Kanariar Uharteetara, Ceutara eta Melillara urrundu zituztenean. Alabaina, lehendik ere espainiar estatuko hainbat kartzeletan aurkitzen ziren euskal presoak, Madrileko espetxeetan, Soriakoetan edota Andaluziakoetan, besteak beste, Euskal Herritik 900 kilometro baino gehiagotara, alegia. Etxeraten 'sakabanatze politika: urrunketa' izeneko txostenean irakur daiteke urruntze hori justifikatzeko asmoz, "espetxe tratamenduaren arrazoiak erabili zirela; hain zuzen ere, presoen sektore 'gogorra' sektore 'bigunetik' bereiztearen komenentzia eta pribilegioak ezabatu beharra" zegoela argudiatu zuen garai hartan Espainiako Gobernuak.

Sakabanaketaren ondorioak

Presoengan eragin zuzena izateaz gain, senitartekoak ere harrapatzen ditu salbuespenezko espetxe politikak. Izan ere, denbora luzean zehar senide eta lagunek milaka kilometro egin behar izan dituzte preso zegoen senidea bisitatzeko, horrek dakarren zama ekonomiko, fisiko eta psikikoa kontuan hartuta. Bisita horietara bidean edo horietatik bueltan, ez dira gutxi izan 34 urte



Deustun urte amaieran egindako argazkia.

hauetan gertatutako istripuak, eta gogoratu beharra dago urrunketaren ondorioz, 16 senide errepideetan hil egin direla.

Hala gogoratu ditu elkarteko kidea den Nagore Mujikak ere, eta heriotza horiek "aitortu" behar direla gehitu du "eraiki beharreko memoria kolektiboan, sufrimendu guztiek lekua izan behar dutelako". Kuantifikatu daitezkeen kalteez aparte, beste batzuk aldiz "ezin dira zenbatu, hala nola, ehunka kilometrora dauden espetxeetara joateko bidaien kostu fisiko eta psikikoa, adin nagusikoekin zein haurrekin, edota lanetik irten ondoren gauez egin beharreko bidaiak, errepideetako eguraldi txarrari aurre egin behar izatea…" gehitu du.

Gerturatzeak

2018. urtean Pedro Sanchezek espetxe politikaren aldaketa iragarri zuen arte, geografikoki Euskal Herritik urrunen dauden espetxeetan urte luzez metatu da preso euskaldunen kopururik handiena.

Urtarrilaren 7ko manifestazioa.

historiako lehen
HEDABIDE MASIBOA DA LIBURUA
ZALLA
urtarrilak 14 - otsailak 6
Madres Irlandesas Plazako
Erabilera Anitzeko Gela
GERNIKA-LUMO
otsailak 7 - martxoak 5
Euskal Herria Museoa
erakusketa
LIBURUAREN ARBOLA

Urtarrilaren 7ko manifestazioko irudi bat.

Frantziako presidentea den Emanuel Macronek, ordea, duela hiru urte egin zuen gatazkaren ondorioen konponbidearen aldeko adierazpena Biarritzen. Hala, 2018ko abuztutik aurrera, gutxika gutxika euskal presoak gerturatzen hasi ziren; koronabirusak eragindako pandemiak eta 2019ko azaroko hauteskundeek prozesua behin-behinean eten zuten arte. 2020ko ekainean berriz ekin zioten gerturatze prozesuari, eta 2021eko uztailera bitartean, euskal preso gehienak izan dira Euskal Herriratuak edota Euskal Herriko espetxe hurbiletara ekarriak. Deustuko presoak diren Juankar Iglesias Chouza eta Jon Mirena San Pedro Basauriko eta Dueñaseko kartzeletan daude gaur egun, hurrenez hurren. Estatu espainiarreko kartzeletan oraindik geratzen diren hamar presoetako bat da Jon Mirena, Euskal Herritik 310 kilometrora baitago. Besteak, aldiz, Zaragozan, Kantabrian, Logroñon edota Madrilen aurkitzen dira, besteak beste. Datozen hilabeteetan horiek denak Euskal Herrira ekartzea espero du Etxeratek. Sakabanaketaren amaierak "motxila handi bat gainetik kentzea" suposatu du Nagoreren hitzetan. Alabaina, oraindik salbuespenezko espetxe-politikaren adibide ugari aktibo daudela gogoratu du: "Egun preso dauden 172 horietatik, asko etxean egon beharko lirateke kondena beteta edo erdi aske, hirugarren graduan. Beste askok zigorraren hiru laurdenak beteta dituzte, badira gainera 19 preso gaixotasun larriak

Banderola berria balkoietan eskegitzeko deia egin du Etxeratek.

Urtarrilaren 7ko manifestazioa.

diagnostikatuta dituztenak. Badira baita ere, 70 urtetik gora dituzten presoak. Eta inork ez dezala pentsa edo sinetsi onurez hitz egiten ari garela, eskubideez ari gara, legedi arrunta eta espetxe-politika normalizatua aplikatzea eskatzen ari gara".

Aro berria, ikur berria

Joan den urtarrilaren 3an aurkeztu zuten Sare Herritarra plataformak eta Etxeratek aro berria irudikatzen duen ikurra. Horiek horrela, Euskal Presoak Euskal Herrira leloa bi gezi beltzen ordez ordezkatua izango da aurrerantzean, eta bi gezi beltzekin batera, *Etxera* hitza. "Presoen eskubideen aldeko lana irudikatzeko asmoz", duela 28 bat urte Elias eta Mikel Minerrek, Jon Altunak eta Jon Alzagak diseinatu zuten orain arte Euskal Herriko hainbat balkoietan ikusgai egon den banderola. Orain, banderola hori ordezkatzeko deia zabaldu du Etxeratek, hori izango baita "presoak etxera ekartzeko zabaltzen den garaia irudikatzen duena".

Egoera datuetan

Urtarrilaren 19an elkarteak eguneratutako txostenari erreparatuta, honako hau da euskal presoen egoera orokorra: Euskal Preso Politikoen Kolektiboko parte diren 172 preso daude gaur egun. Horietatik 147 dira gizonak eta 25 emakumeak. Euskal Herriko kartzeletan 150 daude, Aita Menni eta Besarkada osasun zentroetan dauden bi presoak kontuan hartuta. Estatu espainiarrean 10 preso aurkitzen dira eta estatu frantsesean, berriz, 12.

Guztira 17 dira larriki gaixo dauden presoak eta senideei dagokionez, 99 umek eta gaztek aita edo ama preso daukate; horietatik 64 adin txikikoak dira.

Bost deportatu politiko daude, Venezuelan bat, Cabo Verden bi eta Kuban beste bi.

Arlo juridikoan, 2. graduan aurkitzen dira gehienak, guztira 123 preso. 29 presori 3. gradua eman diete eta horien artean 11 etxean preso daude. Egoera prebentiboan 5 daude guztira.

Preso dauden 172tik, 46k zigorraren hiru laurdenak beteta dituzte dagoeneko, eta guztira 50 presori ez zaie kontuan hartzen ari estatu frantsesean betetako zigor denbora.

ZER GERTATZEN DA MAILA DESBERDINETAKO UMEAK NAHASTEN DITUGUNEAN?

Testua eta argazkiak: Deustuko Ikastola

Argi dago!!! Halako egoera ematen denean… MAGIA sortzen da eta denak elkarrekin ikasten, jolasten eta ondo pasatzen hasten dira.

Izan ere, umeen sormenak, ideiak eta aurrez-aurreko ezagutzak elkartzen ditugunean, mundu ezaguera zabaltzen da… eta orduan bai, JAKIN-MINAREN motorra pizten da!!

Hori guztia kontuan hartuta, hona hemen Deustuko Ikastolako…

ELKARREKIN GOZATZEKO

TXIKITAILERRAK



Esperientzia berri honetan Haur Hezkuntzako 4-5 urteko umeek eta 6.mailako ikasleek hartzen dute parte.

Ostiralero sei tailer antolatzen ditugu: “Mahai jolasak”, “Sukaldaritza”, “Extra fun games”, “Sentimenduak”, “Eskulanak” eta “Dantza eta Kanta” tailerrak.

Tailer bakoitzean 4-5 urteko 14 ume biltzen ditugu eta horiekin batera irakasle bat eta 6. mailako hiru ume nagusi, proposatutako jolasak edo ekintzak aurrera eramateko.

Mahai jolasak.

Zergatik TXIKITAILERRAK?

· Taldeko lanean ezarritako metodologia aktibo eta koperatiboan oinarritzen garelako.

· Ikasteko eta irakasteko orduan aniztasunak eta ikasleen eta taldearen heterogeneotasunak ematen duen aberastasunean sinesten dugulako.

· Taldearen eta tutorearen arteko antolaketa itxia hausteko eta ziklora irekitzeko. Guztiok ikaskide garelaren sentimendua areagotzeko, bai ikasleen artean baita irakasleen artean ere.

· Bizikidetza positiboa bultzatzeko: elkarlana, elkarrizketa, entzute aktiboa, aniztasunaren onarpena eta arreta... .

Deustuko ikastolan urteetan landutako helburuetako praktika onen trukaketari eutsi nahi diegu:

-Ikaskideen arteko interakzioan ematen den ikasketa bultzatuz.

-Haur Hezkuntzako curriculum-eko arlo guztien edukiak landuz.

-Talde desberdinetako ikasleen arteko harremanak erraztuz.

-Ikasleen autoestima hobetuz eta irakasleen arteko elkarlana bideratuz.

Has gaitezen MAGIA egiten magiarekin ametsak egi bihurtzen ditugulako!

Sukaldaritza.

Sentimenduak.

Dantza eta kanta.

Eskulanak.

HERRI-LURREN AURKAKO ERASOA (III)

1810 eta 1811 bitartean Deustuko herriak ehun mila estatu lur pribatizatu zituen. Herriko azaleraren %10, gutxi gorabehera. Eta hura hasiera baino ez zen izan.

Testua: Hektor Ortega

Deustuko herria XVIII. mendeko plano batean.

Herri-ondarearen pribatizazio prozesua aztertzeari ekingo diogu, berriz ere. Azaroko aldizkarian, 1810–1811ko maiatza bitartean egindako salmentak hartu genituen hizpide. Eta zuzenketa bat egin beharrean gaude: orduan Deustuko herriak saldu zituen 101.357 estatutik, basoak azalera osoaren %42 izan ziren, eta ez %25etik behera, atal hartan aipatu genuen bezala. Hiru oihan-sail saldu zituen herriak, bat Guardian (18.000 estatutik gora) eta beste biak Berrizbason, Artxandako goialdean (24.000 estatu). Beraz, saldutako ogenak (ibai ondoko arlo oparoak) 55.389 estatu zabal ziren, 25 hektareatik gora alegia.

Kontua da salmenta jarioa ez zela ordukoan eten, herriari ezarritako zama oso handia zelako. 1812ko abuztuan zilegi-lur gehiago saltzeko erabakia hartu zuen herriak, zeren eta “la anteiglesia se hallava exausta enteramente de caudales y era presiso se arbitrase alguna cantidad para subenir a los gastos tan grandes

con que en la actualidad se halla". Horrekin nahikoa ez eta 1813ko martxoan zilegi-ondare gehiago salgai ateratzeko baimena eskatu zuen: Basabeko iturriko ondoko ogena, Zorrotzaurre etxea eta bere arloak, eta Zorrotzaurren bertan "150 gizalaneko ogenak". Gizalana neurria zen, ehun estaturen parekoa. Salmenta horren bidez 134.000 erreal lortu nahi zituen herriak. Hiru hilabete geroago, ogen gehiago (300 gizalan) saltzeko baimena eskatu zuen herriak. Kasu guztietan, baimena eman zioten.

Gerra ostean, ere

Frantsestea amaitu zen, azkenik, baina orduan ere zorrak kitatu ezinik zebilen Deustua, eta zilegi-lur gehiago saltzeko premian ikusi zuen bere burua. 1815eko otsailaren 5ean, adibidez: "antes de que sea enjuiciada la anteyglesia por sus acreedores, por evitar de maiores gastos, [erabaki zuen] el que se haga venta de los propios de que es dueña".

1816ko otsailean Deustuko udal kargudunek saldutako herri-ondarearen berri eman zuten. Alde batetik, etxe bi, Zorrotzaurre eta Elorrietako etxe berria alegia, euren "pasaia ontziak" eta guzti. Ez ahaztu etxe horiek ibaia zeharkatzeko txalupa zerbitzua emateko eraiki zituela herriak. Eta, horrez gain, ogenak, basoak eta landak, zehaztu gabeko neurrian. Orotara herriak 647.337 erreal eskuratu zituen bide horretatik, horietatik 600.000tik gora etxe eta ogenen truke. Zorigaitzez, ez dugu aurkitu salmenta guztien zerrendak edo sorta osoaren eskriturak. Beraz, ezin jakin zehazki noren mesedetan egin zituzten salmentok. Hori hurrengo atalean jorratuko dugu. Bitartean, esan dezagun prozesua ez zela hemen agortu. Sasoi hartan Elorrietako etxe zaharra ere saldu zuen herriak eta, 1823an, Hirurte Konstituzionalaren amaieran, baimena eskatu zuen Ibarrekolandako San Migel ermitaren ondoko etxea eta Elexaldeko herriko taberna salgai paratzeko.

Urte batzuk geroago, 1838an, karlistada gori-gori eta Deustua Espainiako armadaren mende zegoela, herriaren ondasunen zerrenda ondorengo hau baino ez zen: Udaletxea, hari atxikitako eskola, eskola ondoko soloa eta udaletxeko plaza, harategia (Kaban, artean zeharo deseginda gerraren ondorioz) eta bide bazterretako lur txataltxoak. Gainerako guztia salduta zegoen. Kinka larri hartan, herriak eskola ondoko soloa, plaza zati bat eta eskola bera jarri zituen salgai.

Eskola, guk dakigula behinik behin, ez zuten saldu. Eskola ondoko arloari Eskolasolo esaten zioten deustuarrek eta hura bai saldu zen. Lemonauriatarrek erosi zuten. Bertako zati batean -beste lursail batzuekin bat eginda- Deustuko frontoi ospetsua eraiki zuten urte batzuk geroago.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

HAUTSAK HARROTU DITU AGIRRE LEHENDAKARIAREN ETORBIDEAN 128 ZUHAITZ MOZTU IZANAK

Testua eta argazkiak: PREST!

Ekologistak Martxan elkarteak salatu duenez, azaroaren 28an Deustuko kale nagusia berritzeko lanak abiatu zirenean, 128 zumar moztu zituen Bilboko Udalak, "sustraiak egoera txarrean" zeudela argudiatuta. Elkarte ekologistak bere aldetik, zalantzan jarri du mozketa horren justifikazioa eta honen ustez "mozketak gehiago erantzuten dio kalearen eraberritzeari, zuhaitzen osasunari baino".

Halaber, azken hilabeteetan Santutxu, Txurdinaga, Indautxu eta Basurtu auzoetan udalak praktika berdinak aurrera eraman dituela gaineratu dute, eta Deustun bezala, azken hauetan asko izan dira herritarren aldetik jasotako kexak eta haserreak.

Agirre Lehendakariaren etorbidean zeuden 128 zumarren ordez, jatorri asiarra duten 125 astigar landatuko dituzte kalea berritzearekin batera. Udalaren hitzetan "balio estetiko handiko espeziea da, hiri-inguruneakin interferentzia gutxiago sortzen dituena eta gehienez bederatzi eta hamar metro arteko altuera hartzen duena". Espezie autoktonoei dagokionez, Bilbon badira adibide ugari, Kale Nagusian eta Sabino Arana etorbidean, besteak beste. Hortaz, Ekologistak Martxanek Bilboko Udalari eskatu dio "espezie autoktonoen landaketa sustatzeko" eta kaleak berritzeko edo egokitzeko planetan "zuhaitzen presentzia nabarmena duten eremuak jartzeko, eremu bakoitzeko beharretara ondoen egokitzen den espezie autoktonoa bilatuz".

IBARREKOLANDA INSTITUTUKO GELA EGONKORREKO IKASLEENTZAKO BALIABIDE FALTA SALATU DUTE

Testua: PREST!

Azken hilabeteetan Eusko Jaurlaritzak egindako murrizketen ondorioz, Ibarrekolanda institutuko Bigarren Hezkuntzako gela egonkorreko ikasleak egoera "tamalgarrian" daudela salatu du Lagundu Euskadi NEE elkarteak. Egoera kaxkarra bazen ere, abenduaren hasieran are gehiago okertu zen lanaldi osoa zuen laguntzaile bat kaleratu zutenean. Horiek horrela, egun senideak dira ikastetxera seme-alabak laguntzera joaten direnak, jaten emateko edo komunera joaten laguntzeko, besteak beste. Beste familia batzuek, aldiz, ikaslea eskolara ordu gutxiago eramatea erabaki dute, "giza baliabiderik ez duen gela batean ahalik eta denbora gutxien" eman dezan. Elkarteak adierazi duenez, egun gela egonkorrean "urritasun eta behar handiak" dituzten lau ikasle aurkitzen dira, eta Hezkuntza Sailak "modu diskriminatuan" aurrera eramaten dituen murrizketek "hauen osasun emozional eta fisikoan eragina daukatela" gehitu du. Lagundu Euskadi NEE elkarteak hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteen familiei aholkularitza eskaintzeko helburuarekin sortu zen 2017. urte inguruan.

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

CEIP SAN INAZIO HLHI
IGESI



D eredua /modelo D

HH2tik LH6ra/ Desde los 2 años hasta 6º de E.P

Bizikasi proiektua/ proyecto bizikasi

Eskolan egindako bazkaria/ cocina propia

Goiz-arratsaldeko zaintza / servicio "conciliación familiar" mañana y tarde

Eskolaz kanpoko ekintza ugari/ amplia oferta de extraescolares

Espazio hezitzaile berriak / nuevos espacios educativos

Ate irekiak/ puertas abiertas: Otsailak 8 de febrero 16:15-17:00

Eskabideak aurkezteko epea/ plazo solicitudes: Otsailak 13-24 de febrero

Cantabria, 2. 48015.
Tel. 944 287 894.

berbetan

HAIZEA URIAGEREKA eta IRATI SIENRArekin

Bilboko Bilgune Feminista

“Bilgune Feministaren sorreratik ulertu genuen emakume

2022. urtean bi hamarkada bete dira esparru ugarietako emakume askok Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zutenetik. Ordutik hamaika dira aurrera eramandako borrokak eta hain zuzen ere horien gainean aritu gara bertako kide diren Haizea eta Iratirekin.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

izateak ez dituela gure menderakuntzaren ertz guztiak azaleratzen”

Nolakoa izan zen Bilgune Feministaren sorrera 2002. urtean? Eta Bilboko taldearena?
Haizea: 2001ean egindako I. Emakume abertzaleen Topaketa Feministetan emakume abertzale eta feministek beraien errealitate propiotik ekiteko eta saretzeko zuten gogotik abiatuta sortu zen Euskal Herriko Bilgune Feminista. Hasiera batean maila nazionalean sortu bazen ere, tokian toki antolatzeko beharra zegoen eta, Bilbon, hainbat auzoetako talde feminista autonomoetan zeuden kide batzuek taldea osatu zuten.

Irati: Garai horretan testuinguru nahasia zegoen: naziogintzan ekiteko grina handia zen, baina, aldi berean, nazio askapen mugimenduan zeudenentzat urte gogorrak izan ziren. Testuinguru politiko horretan, Euskal Herri burujabea feminismotik eraikitzeko beharra gero eta nabarmenagoa zen. Feminismoa erdigunean jartzeko apustu politiko horrek bultzatu zituen hainbat emakume Bilboko taldea sortzera.

Asko aldatu dira hasieran batean finkatutako asmoak eta erronkak?
I: Esango nuke hasieran finkatutako helburu nagusiak berdina izaten jarraitzen duela: Euskal Herri feminista eraikitzea. Burujabetza Feministaren paradigman oinarritzen gara helburu hori irudikatzeko, hau da, guztiontzako antolamendu politiko, sozial, ekonomiko eta kultural berri batean.

H: Hala ere, hasiera batean, eremu ezberdinetan zeuden emakume abertzale eta feministak saretzea zen helburu nagusia. Egun, Bilbon, adibidez, mugimendu feministaren lidergotza eta intzidentzia indartsua lortzea da gure lehentasuna.

Zer lorpen izan ditu Bilgune feministak duela 20 urtetik gaur egunera arte?
H: Taldea sortu zenean, zaila zen feminismoari gaur egun duen presentzia ematea; izan ere, beti egoten ziren beste lehentasun batzuk, eta feminismoa ez zen zehar lerro gisa hartzen. Bilgune Feministak Euskal Herriko mugimendu feministarekin batera lortu zuen agenda politikoan borroka feminista lehen lerrora eramatea, eta ondorioz, mugimendu autonomoak indartzea, zein bestelako borroketan feminismoa zehar lerro gisa txertatzea.

I: Bestalde, jendarteak asko aldatu du feminismoarekiko ikuspegia, eta honetan ere alea jarri du Bilguneak. 20 urte daramatza problematika espezifikoak azaleratzen, eztabaidak kaleratzen, ezkerreko markoetan hausnarketa pizten…

Dena den, gure ustez, lorpenik handiena da Euskal Herrian egituratuta dauden dinamiketan inurri lana egitea, horrek ahalbidetzen baititu benetako aldaketak.

“Lorpenik handiena da Euskal Herrian egituratuta dauden dinamiketan inurri lana egitea”

▷ ▷ SAKONEAN

“Euskal Herri feminista lortu nahi badugu, nazio ikuspegia ere elikatu beharra dago”

Noiz eta nola hasi zineten Bilgune Feministan militatzen?

H: Duela 5 urte, 2018. urtean. Garai hartan auzoko talde feministako kidea banintzen ere, Bilgune Feminista erreferentea zen niretzat Euskal Herrian egiten zuen lanari eta zabaltzen zituen irakurketei dagokienean. Momentu horretan ez nuen neure burua Bilgunean irudikatzen; baina, Bilboko taldeko kide batek taldean parte hartzeko proposamena luzatu zidanean, ezin ezetz esan.

I: Haizea bezala, feminismora lehen hurbilpena Pare!-ren bidez izan zen. 2008 inguruan Deustuko Gazte Termometroa deitu genuen gazte mugimenduaren prozesuan feminismoko lantaldean aritu ginen, eta hortik ondorioztatu genuen Deustun talde feminista bat sortzeko beharra (eta batez ere gogoa). Pare!-n urtetan aritu ondoren, beste saltsa batzuetan murgildu nintzen, baina denbora gehiago izan nuenean, 2019an Bilboko Bilgunen hasi nintzen.

Hasieran irakaspen kolektiboez aritu gara. Zeintzuk dira, ordea, irakaspen pertsonalak?

H: Nire ibilbide militantean asko edan dut Bilgune Feministaren diskurtso politikoetatik. Horrez gain, sinplea eman dezakeen arren, nazio mailan egituratuta dauden talde feministen beharraz jabetu naiz. Ni auzoko talde feministan lan egitera ohituta nengoen, eta maila lokalean lan egitea beharrezkoa dela uste dudan arren, benetako Euskal Herri feminista lortu nahi badugu, nazio ikuspegia ere elikatu beharrean gaudelakoan nago.

I: Bizitza eskola bat izan da. Batetik, nire burua ulertzeko, egoteko, baloratzeko eta harremantzeko moduan. Bestetik, mugimendu feminista hain anitza izanda, begirada norbere zilborretik aldendu eta begirada zabaltzeko aukera bat izan da: beste errealitate batzuk ezagutu, desberdinekin lan egiten ikasi...

Nazio mailan egituratuta egon arren, zuen kasuan, Bilbo da eragin esparru nagusia. Finkatuta dituzue dagoeneko aurrera begirako erronkak?

H: Bilgune Feminista Euskal Herri mailan egituratutako taldea da, horregatik, gure erronketako bat Bilgune Feministak berak dituen aldarrikapenak, kanpainak eta diskurtsoak Bilbon lurreratzea da. Gaur egun, adibidez, hainbat gai ditugu esku artean: dekolonialitatea, gorputzen burujabetza, zaintza… Horrez gain, tokian tokiko errealitateari erreparatzeari ezinbestekoa deritzogu, eta Bilbo Feminista Saretzen koordinadoran kide aktiboak izatea funtsezkoa da guretzat, Bilboko mugimendu feminista indartzeko, saretzeko eta gainerako kideekin aliantzak sortzeko. Bilgune Feministaren diskurtsoarekin bat egiten duten emakumeen sarea elikatzea ere gure ardatzetako bat da.

Zer harreman dauka Bilgune feministak euskararekin? Eta mugimendu feministak?

I: Bilgune Feministaren sorreratik ulertu genuen emakume izateak ez dituela gure menderakuntzaren ertz guztiak

azaleratzen, gure esperientzia generoaren, klasearen eta kultura/hizkuntza/nazioaren bitartez artikulatzen baita. Mugimenduari dagokionez, gure ustez, akordio zabala eta indarberritua behar dugu eta, horretarako, argi dugu joan etorriko bideak urratu behar ditugula. Batetik, ezinbestekoa dela Euskal Herrian dauden beste hizkuntza eta kulturekiko begirunea izatea. Bestetik, euskarara iritsi ez den kideak jakin eta ulertu behar du euskara auzi politikoa dela, eta mendeetako zapalkuntza jaso duen hizkuntza gutxitu eta zapaldua dela. Elkarrekiko begirunea, enpatia eta komunikazio bideak ezinbestekoak izango dira elkarbizitza sortzeko ariketa honetan.

2020ko Euskal Herriko Emakume Abertzaleen VIII. Topaketetatik "Araka ditzagun gure bazterrak" lelopean abiatu zenituzten emakume zuri, etorkin eta arrazializatuen arteko aliantzak. Zuritasunaren pribilegio horien gainean hausnartuta 2022ko maiatzean izen bereko saiakera argitaratu duzue. Nola lurreratuko duzue gaia Bilbon?

H: Ezer baino lehen, barne mailako lanketa egitea dagokigu eta horretan ari gara. Bilgune Feministak aspaldi hasi zuen dekolonialitate prozesua, baina bide luzea izan da, eta izango da. Taldeko kideok argi dugu gure ardura politikoa dela geure buruarekin lanketa hori egitea, beraz, hori da lehentasuna.

I: Horrez gain, duela bi urte dekolonialitatea lantzeko saio bat egin genuen gure hurbileko sarearekin, eta aurten ere badugu horretarako asmoa, denon artean hausnarketa bideratzeaz gain, kideekin aliantzak sortzeko eta konpromisoak hartzeko.

Zaintzaren problematikan arreta berezia jarri duzue azken urteotan. Zaintza sistema publiko eta komunitarioa aldarrikatzera ere heldu zarete. Zeintzuk dira azaleratu dituzuen gatazkak?

H: Zaintzaren definizioa bere horretan gatazka handia da: zer da, nor/nork zaindu, nola… Horrez gain, arazo handia dira zaintzak duen aitortza eza, pribilegioen lanketari diogun beldurra eta sektore feminizatuetan dauden arazoak: patronalik ez, antolakuntzarako zailtasunak, migrazio politikak…

Zaintza eskubidea eskubide unibertsal gisa onartzeaz ari zaretenean, zer da aldarrikatzen ari zaretena?

I: Pertsona guztiek bizitza osoan, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaini eta jasotzeko eskubidea izateaz ari gara. Mendekotasun-egoerez harago doa, eta berekin dakar erabaki ahal izatea zenbateraino, nola eta nor/nork zaindu; zaintzarik ez dugula nahi erabakitzeko eskubidea barne. Eskubide hori modu kolektiboan ulertzen dugu, eta defendatzen dugu emakumeek ez ditzatela gehiago beren bizitzak immolatu zaintzeko betebeharraren izenean, eta, bide batez, salatzen dugu, gaur egun, ez zaintzea pribilegio bat dela.

Ez dira gutxi mugimendu feminista kriminalizatzeko azaleratzen diren saiakerak (Algorta, Bilbo…). Jarrera horien aurrean, zein da Bilgune Feministaren irakurketa?

H: Urteak daramatzagu lanean, bide luzea egin dugu, eta ondo merezitako aitortza dauka mugimendu feministak. Gure kontrako kriminalizazioa eta erasoak egindako guztiari zilegitasuna kentzeko saiakerak baino ez dira. Deseroso sentiarazten dugu gizartearen zati handi bat, eta sistemaren aurka egiten dugunean, hura iraunarazi nahi dutenek gogor erantzuten dute. Bide onetik goazenaren seinale, sistemaren oinarriak astintzen. Hala ere, argi dugu ez diegula arreta desbideratzen utziko. Gurean jarraituko dugu, lanean tinko, eta edozein erasori indarrez erantzungo diogu.

"Zaintzaren definizioa bere horretan gatazka handia da: zer da, nor/nork zaindu, nola…"

Itziar Moreno, San Inazioko presoa kalean

12 urteko espetxealdia beteta, Zaballako kartzelatik baldintzapeko askatasunean atera zen Itziar Moreno San Inazioko presoa joan urtarrilaren 13an. 2011. urtean atxilotu zuten Croze herrian, 2019an gaixotasun baten ondorioz hil zen Oier Gomez Mielgorein batera. Zigorraren zatirik handiena estatu frantsesean bete du, lehenengo Roanneko kartzelan eta ostean Rennesen, Euskal Herritik 800 kilometrora. Frantziako zigorra beteta, joan den abuztuan Espainiaratu zuten. Lehenengo hilabeteak Alcalan eman zituen eta urrian Arabako Zaballa espetxera hurbildu zuten. Zigorraren hiru laurdenak 2019. urtean gainditu zituen.

KULTURA

Mullerrenea espazioa berriz erabilgarri

Muller txokoaren berrirekiera jaialdia ospatu dute Berbaizu Euskara Elkarteko kideek. Gabonetan zehar espazioa txukundu eta berrantolatu ostean, espazioa berriz erabilgarri dagoela ospatu nahi izan dute urtarrilaren azken astean egindako ekintza ezberdinen bitartez. Horiek horrela, urtarrilaren 24an, asteartea, pintxo osasungarriak prestatzeko saio gastronomikoa izan zen, On Ekin elkarteak gidatuta. Ostegunean berriz, Eneko Irastorza – IRAS - deustuarrak abiatu berri duen proiektua aurkezteko kontzertua eskaini zuen. Jai xume honen bitartez, Berbaizuko kideek azaldu nahi izan dute espazioa erabilgarri dagoela urtean zehar ekitaldi kultural ezberdinak antolatzeko.

OMENALDIAK

Yolanda Gonzalez oroitu dute Deustuko Erriberan

Bere erailketaren 43. urteurrenean, joan den urtarrilaren 29an, igandea, Deustuko Erriberako auzokideek Yolanda Gonzalez Martin oroitu zuten bere izena duen plazatxoan. Langileen Alderdi Sozialistako kidea zen eta 1980ko otsailaren 1ean, 19 urte zituela, Batallon Vasco Español erakunde ultraeskuindarrak bahitu eta tiroz hil zuen Madrilen. Egun berean talde berberak Jesus Mari Zubikarai asasinatu zuen Eibarren. Urte baten buruan, BVE erakunde paramilitar espainiarrak egin zituen 11. eta 12. hilketak izan ziren, hurrenez hurren. Euskal herritarrak izateagatik hil zituela azpimarratu zuen BVEk komunikabideei igorritako hilketen aldarrikapenetan. Aipatutako gertakariek euskal gizarte osoa hunkitu zuten. Yolandaren erailketa salatzeko greba erabatekoa izan zen Deustun. Iluntzean 5000 herritar inguruk parte hartu zuen Deustuibarrako San Pablo elizan bere alde antolatutako hiletan.

JAI HERRIKOIAK

Badatoz inauteriak!

Urtero bezala, inauterien egutegia zabaltzen lehena Deustuko Jai Batzordea izango da, Otsailaren 10etik 12ra bitartean antolatu baitituzte aurtengo aratusteak. Ostiralean emango diote hasiera egitarauari, auzoko kuadrillei zuzendutako ekintza ezberdinekin. Hala, ostiraleko mozorro gaia mahai-jolasak izango da eta kuadrillen arteko mozorro lehiaketaz gain, jolas ezberdinak ere egingo dituzte haien artean. Larunbatean herri bazkaria egingo dute Done Petri plazan eta ostean, Deustuko kaleetatik mugituko den elektrotxaranga batek girotuko du arratsaldeko parterik nagusiena. Bihotz Alai dantza taldearen erromeria izango da arratsaldeko 20:00etan eta gauean Beranduegi erromeriak kontzertua eskainiko du. Igandeko desfilearekin eta 7 kale taldearen kontzertuarekin amaituko dituzte inauteriak Deustun. San Inazion eta Erriberan berriz, otsailaren 25ean ospatuko dituzte inauteriak. Erriberako egitarauaren faltan, San Inazion larunbatean egingo dute urteroko desfilea eta sari banaketa. Egunean bertan poteo musikatu batek ere girotuko ditu auzoko kaleak. Amaitzeko, DJ Kastaren emanaldia izango da.



Urtea: 2009

Txema Luzuriaga

Metalúrgica y Ferroaleaciones Especiales, S. A. (M.E.F.E.S.A.)

Plakatxoak eta DIN eta ISO arauzko erremintak fabrikatzen zituen, metal gogorrekoak, bai eta industriarako oro har metal gogorrez egindako era guztietako piezak ere. Enpresa 1930ean sortu zen gutxi gorabehera, eta 1949an heldu zen Bilbora. 1994an Metalúrgica y Ferroaleaciones Especiales Sociedad Anónima (MEFESA) izena izatetik *Fabricacion de Metales Duros – FMD Carbide* izatera igaro zen. Enpresak metal gogorreko piezak fabrikatzen ditu, Wolframio eta Kobalto karburoz osatutako material mistoa hain zuzen. Oso material gogorra da, portaera mekaniko ona du eta ekoizpen-prozesuetan muturreko kalitatea eskatzen duten tresnak fabrikatzeko erabiltzen da. Zorrotzaurreko 35. zenbakian jardun zuen denbora luzez, baina enpresa Basaurira joan zen 2016 inguruan.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

uriola
uriola.eus

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Aratusteak ate joka ditugu. Zein da ikusi duzun mozorrorik bitxiena?

Ainhoa Amurrio

Amurrion, Kasildak mozorro izugarriak sortzen ditu, berak ekoiztuak, material birziklatuak erabiliz. Bitxiak ez dakit, baina inoiz ikusi ditudan ederrenak dira.

Imanol Bilbo

Behin, David Potter ikusi nuen kaletik. Ala Harry Bowie zen? Ez daukat argi, baina tximista gorri eta urdin batek aurpegia zeharkatzen zion eta betaurrekodun magoa zen.

Amaia Bilbo

Bitxiena ez dakit, baina bitxia bai. Lagun batek Gabi de la Mazaren karaoke mozorroa eraman zuen. Youtubeko pantallazoa kartoi handi batean eta tuberiekin egindako ingenieritza lan fina. Tuboei eraginda pantaila beltzean euskal kanten letrak agertzen ziren.

Alaitz Arangoiti

Lagun batzuk gabardinadun ganbaz mozorrotu ziren. Goma-aparrezko ganba baten burua egin eta gabardina batzuk jantzi zituzten. Brutala!

Eneko Bilbo

Lagun baten urteak Maiatzaren batean dira. Deustuko aratusteetan ikurriña komunistaz mozorrotu genuen. Gau ikaragarria izan zen.

Gontzal Deustu

Tolosako inauterietan kuadrilla bat errusiar mendiz mozorrotuta ikusi nuen.

>> MUSIKA

IRAS IZENEKO PROIEKTU MUSIKALA ABIATU DU ENEKO IRASTORZA DEUSTUARRAK

Testua: Nerea Cubillo Urkizu



Kuaderno batean idatzita zituen letrei doinua jartzen lagundu dio Saim Mendi ekoizleak Eneko Irastorza Deustuarrari. Biek IRAS izeneko proiektu musikala abiatu zuten joan den urtean eta dagoeneko bost kanta kaleratu dituzte: *Esnatuko naiz, Artalde, Lurruna* eta *Zukua*, besteak beste. Abestiak bi hilerik behin argitaratzen dituzte eta Irastorzaren hitzetan "aurrerago azalduko duten arau berdina mantentzen dute denek, izan ere, hilaren 11. egunean argitaratzen ditugu, gaueko hamaiketan". 11 zenbakiak proiektu honetan duen garrantzia ezagutzeko itxaron beharko dugu, beraz. Pandemia aurretik ezagutu zuten elkar Enekok eta Simonek. Ordutik, eta itxialdiak eskainitako denborari probetxurik handiena aterata, abestiak sortzeari ekin zioten. Datozen hilabeteetan beste zazpi abesti kaleratzeko asmoa daukatela azaldu digu deustuarrak. Zaila da sortzen duten musikari estilo bakar bat esleitzea. Hala ere, "musika urbanoari asko hurbiltzen den estiloa da, baina era ez hain gogorrean" dio. Euskal Herrian oraindik errotuta ez dagoen estiloa da aipatutakoa, alabaina, azkenaldian hazkunde betean dagoela esan genezake. Emanaldiei dagokionez, bi emanaldi eskaini dituzte dagoeneko. Loraldia Terminala egitasmoaren baitan, Deustuibarrako La Terminal aretoan egin zuten lehena azaroaren 11n, eta Deustualdeko mugak gainditu gabe, urtarrilaren 26an Muller espazioaren berrirekiera jaialdian ere kontzertu akustikoa eman zuten. Azkenik, martxoaren 17tik 26ra bitartean ospatuko diren Deustuko jaietan ere bikotea berriz taula gainean ikusteko aukera izango dugu. Emanaldiez haratago, Gaztea irratiaren Maketa lehiaketan parte hartu dute, eta horrek "ezagunago" egin ditu Irasen arabera. Gainera, "pozik daude jendeak proiektuarekiko izandako erantzun onarekin".

Mintzapraktikaren 30 urte jasotzen dituen dokumentala aurkeztu dute

2023. urtean hiru hamarkada beteko ditu Mintzapraktika egitasmoak, eta 30 urteko ibilbidea laburtzeko, 15 minutuko dokumentala sortu dute, "egitasmoaren sortzaile eta zenbait mintzalagunen esperientzia pertsonalei buruzko testigantzak jasoz".

Donostiako Bagera euskara elkarteak sortu zuen egitasmoa 1993. urtean, "sei Bagerakide eta euskaltegietan euskara ikasten ari ziren beste sei lagun elkartu zirenean". Gaur egun, Euskaltzaleen Topaguneak igorritako oharraren arabera, 7.000 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute mintzapraktika saioetan. Laburmetraia ere elkarte berdinak sortu du.

QR kodea eskaneatu dezakezue dokumentala osorik ikusteko.

>> IRAKURKETA

IRAKURKETA ERREZA TALDEA ABIATUKO DUTE BERRIZ ERE DEUSTUN

Testua: PREST!

Euskarazko irakurketa eta mintzamena suspertzeko helburua du 2012. urtean sortu zen Euskadi Irakurketa Erraza elkarteak. 2017. urtetik liburuak irakurri eta horien inguruan eztabaidatzeko taldeak antolatzen dituzte Bilbon. Hain zuzen ere, horietako talde bat otsailaren 7tik martxoaren 14ra arte Deustuko Liburutegian elkartuko da asteartero, Rudyard Klipingen Kapitain ausartak liburua irakurtzeko asmoz. Otsailaren 6ra arte egongo da taldean izena emateko epea zabalik. Euskara ikasten ari den edo euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duen jendeari dago zuzenduta talde hau. Hala, taldeak "euskaraz irakurtzearen lilura suspertzea" du xede, euskara praktikatzearein batera.

Honako hau da Rudyard Kliping idazlearen Kapitain Ausartak liburuaren sinopsia:

Kapitain ausartak (1897) abentura eta ikaskuntzari buruzko eleberria da. Harvey Cheyneren istorioa kontatzen du, Estatu Batuetako gazte aberats eta mizke hazia, luxuzko transatlantiko batetik erori ondoren, bakailaoa arrantzatzen duen itsasontzi batek jasotzen du. Hiru hilabete baino gehiagoan zehar esperientziadun marinel eta bere adineko gazte batekin lan egin eta beraien esana bete beharko.

Tentu handiz idatzitako liburuak

Edozein testu egokitu daiteke Irakurketa Errazera. Hainbat ezaugarri zaindu behar ditu: edukia, forma edo diseinua eta hizkera. Diseinu garbia izan behar du, espazio zuri askorekin. Serifa gabeko tipografia erabiltzen du, 12 puntutik gorako tamainan eta lerro arteko tarte handiarekin. Esaldi guztiak puntuarekin amaitzen ditu, eta ez ditu orri batetik bestera mozten. Gainera, esaldiak mozteko irakurtzean arnasa hartzeko egiten dugun etena baliatzen du, esaldiak euren forma naturalean moztuz. Azkenik, hiztegi erraza, baina aberatsa erabiltzen du, irakurleentzako erakargarria izateko.

Aipatu bezala, otsailaren 6an amaituko da Deustuko irakurketa erreza taldean izena emateko epea.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Eredu duala eskaintzen zuelako aukeratu nuen Mondragon Unibertsitatea”

Gorka Usunaga Ingeniaritza Mekatronikoa gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, Bilbao AS Fabrik campusean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Txikitatik gustatu zait musika jotzea, zeharkako txirularekin hasi nintzen eta gaur egun saxofoia jotzen dut. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza Jesuitak ikastetxean egin nituen, eta batxillergoa egiteko Deustuko IES Botikazar institutura aldatu nintzen.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekatronikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Ikasketa guztiak teknologia eta zientzia arloan egin nituenez, ingenieritza bat egitera bideratuta nengoen. Ingeniaritza mota desberdinak ikusita, Ingeniaritza Mekatronikoa izan zen atentzio gehien eman zidana. Gradu hau berria zen eta ingeniaritzaren arlo desberdinak elkartzen zituen. Gainera dual eredua eskaintzen zuten eta horregatik hautatu nuen Mondragon Unibertsitatea.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orokorrean gustura egon naiz. Lehenengo kurtsoa gogorra egin zitzaidan, kontzeptu berri asko, unibertsitatearen erritmora egokitu… Baina urtea pasa ahala moldatzen joan nintzen. Bigarren urtearen erdia Somorrostron egin genuen. Han jasotako klaseak oso praktikoak izan ziren, tailer mekanikoetan lan egin, soldatzen ikasi, aparatu elektrikoak aztertu…

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Mondragon Unibertsitatean jasotzen den ikasteko metodologiak ikaslea behartzen du materia eguneratuta eramatera. Gainera, seihileko bakoitzaren amaieran talde lan bat egiten da horraino ikasitakoa era praktiko batean aplikatzeko. Proiektu honek laguntzen gaitu ikasten ari garena zertarako balio duen ulertzeko eta gure artean lan egiten ikasteko.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Niretzat unibertsitatea Bilbon kokatuta egotea oso abantaila handia da, etxetik gertu daukadalako. Bestalde, faltan botatzen da liburutegi bat. Ikasteko gelak badaude, baina denbora mugatu batez erreserbatu ahal ditugu eta ez dute liburutegui batek ematen duen askatasuna eskaintzen. Beste zerbait hobetzeko kafetegia izango litzateke, prezioak ez dira egokienak.

Zer moduzkoa izaten ari da esperientzia Bilbao AS Fabrik campus berrian?

Eraikina berria denez, hasieran ez zegoen guztiz amaituta eta lehenengo bi urteetan ez da egon jende askorik. Orain, gero eta gradu gehiago sartzen ari dira eta giroa hobetzen doa. Horrez gain, instalazioak eta eskuragarri dauzkagun zerbitzuak oso ondo daude.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Bizkaia hanburgesa

Duela urtebete eman genuen Deustuko Herriko Tabernako ostiraleko eskaintzaren berri orrialde hauen artean. Alabaina, ikasturte hau eskaintza berri batekin abiatu dute eta Deustuko gazte askoren topagune den heinean, garrantzitsua iruditu zaigu karta berriaren zabalpena egitea.

Prezioa: 9,5€

Zailtasuna: txikia

Denbora: 15 minutu

Kontu batzuk

Kartan razio berriak txertatzeaz gain, lehen zegoen eskaintza ere hobetu egin da, bertako langileak diren Gorka eta Andrearen arabera. Razioen artean, etxeko gazta makilatxoak edota etxeko boletus kroketak gomendatu dizkigute, besteak beste. Bestalde, astean zehar eskaintzen duten tortillaz gain, hotzari aurre egiteko etxeko salda ere badago, 1.50€an.

DEUSTUKO HERRIKO TABERNA
Ramon y Cajal etorbidea, 29

Astelehenetik asteazkenera
17:00-22:00
Ostegunetan eta ostiraletan
17:00-00:00
Larunbatetan
18:00-00:00

Bizkaia hanburgesa

Kartan aurki daitezkeen hiru hanburgesetatik behi okel helduarekin egina dagoen bakarra da Bizkaia hanburgesa. Horrez gain, hirugihar ketua, cheddar gazta eta saltsa sekretua ere baditu. Ogia ere aldatu egin dute eta egun, brioche opilean ematen dituzte hiru hanburgesak.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

~IZEKI~
TABERNA
BETI ZIZEKAN SUA
argi bat izeki zen zeruan
su horidun sugarra ostopo
itzalsuen atzean
Ramon & Kajal 26
DEUSTU
IZEKI

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00
BORDATXO
JATETXEA
San Pedro plazako
frontoiaren atzean

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DANEL ABANDO OLABARRI
Irakurzalea

Benetako lagunak zer diren

Durangoko Azoka. Salmahaietan zehar abiatu naiz, azokaz kanpoko oro desagertzen dela sentituz. Liburu bat hartu, ireki eta bere baitara jauzi egin dut. Hitzak, irudiak, mundu bat. Halako batean, gero eta hurbilago sentitzen dudan zarata batek harrapatu nau, errealitatera bultzatuz:

-Danel. Danel. Danel! Daaaaaaanel!!!- lagunak indarrez oratu nau besotik, jiratzera behartuz.

Arrastaka narama, txintik esan gabe, begiak ikusi ezin dudan helmugan josiak dituela; heldu garen arte ez da gelditu. Orduan ohartu naiz:

-La hostia!

Joseba Sarrionandia parez pare. Dagoeneko luzea da maisua zuzenean ezagutu nahi dutenen ilara (bai, futbolari ospetsuena bailitzan, eragiten duen lilura bezain luzea den errenkada sortzen ari da). Mundualdi oso bat iruditu zaigun tartea itxoin eta gero, unea heldu zaigu: baldarki, izan ginen umemokoen gisan, totelka, elkarrizketa baten antz gutxi duen zerbait izan dugu idazle handiarekin. Sinadura liburuan, hori bai. Eta, "klik", argazkia ere bai; eternitaterako.

Ibiltzen hasi gara, gertatutakoa digeritzeko edo. Gelditu, begietara so egin eta elkar besarkatu dugu. "Biba!", Athleticen gola ospatzen dutenen modura. Literaturaren hooliganak? Auskalo, baina, aurpegian irribarre zabala dudala, zera pentsatu dut: "literaturaren hegoak eta adiskidetasunaren beroa, nahikoa zoriontsu izateko!".

Doinua: Dozena bat bertso berri A

SALVA ANAKABE SOLABARRIETA
Elorri bertso-eskolako kidea

Urtea-aurrera doala
Egutegia da bala
Kandelario, San Blasak eta
Ageda hor dala
Okerra eta formala
Berezi eta normala
Argi ibili, gainean dugu
Deustun karnabala
Hau ez da zorakeria
Esaten dizut egia
Laster jendeak margotuko du
Bere aurpegia
Erdi gezur egi-erdia
Drama eta komedia
Mozorrotzea baino gehiago
Da inauteria

bilbon euskaraz

Bilboko kaleetan gero eta gehiago entzuten da

ZER DA?

Bilbao

E S K A _ _ _ _ _ _ _ _

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

Berbaizu
euskara elkartea

Deustuko 2023ko

INAUTERIAK

OTSAILAK | 10 - 11 - 12

OSTIRALA | KUADRILLEN GAUA

GAIA: MAHAI JOLASAK!

20.00

Txupinazoa eta bafle poteoa! Ostean... kuadrillen arteko desfilea + sari banaketa eta luntxa

DONE PETRI PLAZA | Aterpearen aldean

LARUNBATA

12.00

Lantzeko inauteriak

Gure Herria dantza taldearen eskutik

DEUSTUKO IKASTOLATIK

12.00

Umeentzako tailerrak

DONE PETRI PLAZA | Aterpearen aldean

13.00

Konpartsen poteoa eta koktel dastaketa

DONE PETRI PLAZATIK | Aterpearen aldean

15.00

Herri bazkaria Tintigorri Konpartsaren eskutik

eta bingo musikatua

BONOAK SALGAI (1€): Oskarbi, Tobarisch eta Bordatxon

** Otsailaren 9rarte*

DONE PETRI PLAZA | Aterpearen aldean

18.00

Orkresta Elektrotxaranga

DONE PETRI PLAZAtik | Aterpearen aldean

20.00

Euskal dantzen erromeria

DONE PETRI PLAZA | Aterpearen aldean

22.00

Beranduegi erromeria

DONE PETRI PLAZA | Aterpearen aldean

IGANDEA

12.00

DESFILE NAGUSIA

*Izen ematea 11.30ean

SAN FELIZISIMO

Ostean...

7KALE kontzertua

DONE PETRI PLAZA | Aterpearen aldean

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

deustukojaibatzordea@gmail.com

AUZOTARROK

BILBOKO AUZOETAKO JAI BATZORDEAK